SUBJUNTIBOA NOR-NORK (Pertsona guztiak)

- **NOR-NORK INDIKATIBO FORMA HARTU:** naute, zaitu, gaituzu, zaituztegu, dituzu...
  nindu**t**en, zintuen, gintuzun, zintuztegun, zenituen...
- **IDENTIFIKATU NOR-NORK ERROA: -U-** na**u**te, zait**u**, gait**u**zu, zait**u**ztegu, dit**u**zu...
  nind**u**ten, zint**u**en, gint**u**zun, zint**u**ztegun, zenit**u**en...
- **ALDATU ERROA: -U- →→→ -ZA-:** naZAteN, zaitZAN, gaitZAzuN, zaitZAteguN, ditZAzuN...
- **SUBJUNTIBOKO EZAUGARRIA: -N** ninTZAten, zintZAN, gintZAzuN, zintZAteguN, zenitZAN...

Orainaldian

Inauterietan inork ezagut ez _____ mozorroa aldatuko dut aurten.

Irakasleek gu estima _____, haiek esandakoa egin behar izaten dugu.

Zerbait asmatu beharko dugu, zuek gu bakean laga _____

Nik zu beste jenderen artean ikus _____, betaurrekoak jantzita eraman beharko ditut.

Berandu iristen naizenean zuzendariak ni ikus ez _____, beste ate batetik sartu beharko dut.

Irakasleak gu lanean jar _____, bi hitz esatearekin nahikoa izaten du.

Zuk ni pikutara bidal _____, asko falta al zaizu?

Zuek ni gonbita_____, zer egin behar dudan jakin nahi dut?

Zer egin behar dugu Aiorak gu bere taldean onar _____

Nire anaia txikiak errespeta_____ zuek ere bera errespetatu beharko duzue.

Nik zu lagun _____ modu hobean eskatu beharko didazu..

Haiek zu ondo ikus _____, ozenago hitz egin beharko diezu.

Praka gorriak erantzi ditugu zezenak gu urrunetik ikus ez _____.

Zer egin behar dut, zuk ni nik zu adina maita _____.

Keinu bat egitea nahikoa duzu Ikerrek zu dantzara atera _____.

LIVEWORKSHEETS